



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 8a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Prozedura arruntaz izapidetzea (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da % 100 finantza ditzan haur hezkuntzako lehen zikloko udal titulartasuneko eskolak. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Kontserbatorioan ematen diren irakaskuntzen etorkizunari buruz duen ikuspegia jakitekoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak udalei 0-3 urte bitarteko eskolen finantziazioaren ehuneko 30 kobratzea nola eta noiz bermatuko dien jakitekoa, Gregorio Galilea Arazuri jaunak egina (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren aktiboak Caixabanki eskualdatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak D ereduko ikasleen murgiltze-sistema eta -printzipioa mantenduko dituen eta hezkuntza-sistema eta -printzipio hori baliatu ahal izatea ahalbidetzen duten baldintzak mantendu, errespetatu eta sustatuko ote dituen jakitekoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako Nafarroako Parlamentuak hautatzekoak diren bi kideen hautapenerako arauak (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

PROZEDURA ARRUNTAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamenaren tramitazioari dagokionez, Erregelamenduko 37.1.Zazpigarrena artikularekin bat, hona ERABAKIA:

1. 2014ko otsailaren 24ko Mahaiaren Erabakiaren bigarren puntua aldatzea, zeinaren bidez

zehazten baitzen zein zen Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena tramitatzeko prozedura. Hona testu berria: "Foru lege proposamen hori prozedura arruntaz eta urgentziaz izapidetzea", eta bertan behera uztea laugarren puntua, zuzenketak aurkezteko epeari buruzkoa.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 100 finantza ditzan haur hezkuntzako lehen zikloko udal titulartasuneko eskolak.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita % 100 finantza ditzan haur hezkuntzako lehen zikloko udal titulartasuneko eskolak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, haur hezkuntzako lehen zikloko udal titulartasuneko eskolen finantzaketan Nafarroako Gobernuak egin beharreko ekarpenari buruzkoa

Apiril honen hasieran, Nafarroako zenbait udalek beren titulartasuneko 0tik 3 urtera bitarteko haur eskolen 2013-2014 ikasturterako finantzaketarako hitzarmenaren zirriborroa jaso dute.

Proposamen horretan, Nafarroako Gobernuak aurreko urtearekiko % 30 jaitsi du bere ekarpena, alde bakarrez eta ez toki entitateei ez Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari aldeztu aurretik kontsulta egin gabe. Murrizketa horrek ez dio

erantzuten arrazoizko inolako irizpide arrazoizko edo objektibori, eta nabarmen baldintzatzen ditu ukitutako toki entitateen aurrekontuak. Azpimarratu beharra dago ukitutako udal gehienek onetsiak dituztela jada beren aurrekontuak, zeinetan doikuntzak egin baitituzte aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko araudira egokitze aldera, eta ezin dute egin Hezkuntza Departamentuak eskatzen dien moduko diru-sarreraren jaitziera garrantzitsua.

Gure ustez, igorritako proposamenak bete-betean jotzen du 27/2013 Legean xedatutakoaren aurka, autonomia gobernuek erabateko finantzaketa emateari baldintzatzen baitio udalenak ez diren eskumenen erabilera. Halatan, udal titulartasuneko haur eskolen zerbitzua desagertzera irits liteke Nafarroako zenbait udaletan.

Hori dela-eta, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Udalei hitzarmen bidez eman diezaien aplikatutako formulatik heldu den zenbatekoaren ehuneko ehun (aplikatu beharreko urteko modulua ken toki entitateak egin beharreko ekarpena, ken familiak eskolatzeagatik egindako ekarpena).

- Ekarpene hori ez dadin gelditu, Hezkuntza Departamentuak nahi duen bezala, "funtz gehigarriak" egotearen ala ez egotearen mende, baizik eta bermatuta egon dadila eta adostutako moduan eta epean ordain dadila.

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Bakar-txo Ruiz Jaso

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Kontserbatorioan ematen diren irakaskuntzen etorkizunari buruz duen ikuspegia jakitekoa.*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Kontserbatorioan ematen diren irakaskuntzen etorkizunari buruz duen ikuspegia jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok ondoko galdera aurkeztu du, Gobernuak Parlamentu honetako Osoko Bilkuran urgentziaz erantzun dezan:

Tuterako musika kontserbatorioak iazko ziurgabetasun egoera bera bizi du bere finantzaketari dagokionez. Gaurko egunez, bere eraginpeko populazioari ezin diote ziurtatu denboran jarraitutasuna izanen duen eskaintzarik. Egoera hori eutsiezina da, eta laster konpondu beharra dago.

Erriberako eskualde osoari musika-prestakuntza eskaintzen dion zerbitzu bat da, emaitza bikainak dituena; argi dago, beraz, ezin dela urte bakoitzeko aurrekontuaren mende gelditu.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak zer ikuspegi dauka epe motz, ertain eta luzera, Tuterako Kontserbatorioan ematen diren ikasketei buruz? Nola bermatuko da Tuterako Kontserbatorioaren finantzaketa? Gobernuak aurreikusita al dauka hurrengo bi urteetarako hitzarmenik, ikastetxearen, irakasleen eta ematen diren ikasketen egonkortasuna ziurtatzeko?

Iruñean, 2014ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Gobernuak udalei 0-3 urte bitarteko eskolen finantziazioaren ehuneko 30 kobratzea nola eta noiz bermatuko dien jakitekoa.

GREGORIO GALILEA ARAZURI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Gregorio Galilea Arazuri jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak udalei 0-3 urte bitarteko eskolen finantziazioaren ehuneko 30 kobratzea nola eta noiz bermatuko dien jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Gregorio Galilea Arazurik, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den apirilaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Udalak egunotan ari dira jasotzen Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa hitzarmenak, Otik 3 urtera bitarteko eskolenak. Hitzarmen horietan, Nafarroako Gobernuak zerbitzuaren finantzaketaren ehuneko 70 kobratzea bermatzen du, eta gainontzeko ehuneko 30a Gobernuak kontusaila handitzearen mende gelditzen da; horrek ikastetxeen finantzaketa zailtzen du.

Ulertezina da erabaki hori orain –aurrematrikula jada egin dagoenean– jakinaraztea, gainera, denbora-tarte urria uzten da hitzarmena sinatzeko; hartara, udalak eta familiak egoera zaillean gelditu dira.

Gure alderdiaren ustez, hezkuntza zerbitzu hori oinarrizkoa da, eta okerra zuzentzea eskatzen du; horrenbestez, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dugu:

- Nafarroako Gobernuak noiz eta nola bermatuko du ehuneko 30 hori kobratzea?

Iruñean, 2014ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Gregorio Galilea Arazuri

Galdera, Nafarroako Kutzaren aktiboak Caixabanki eskualdatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Kutzaren aktiboak Caixabanki eskualdatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen baimendu Nafarroako Kutzaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea? Nafarroako Gobernuak erabaki hori oinarritzeko txosten juridikorik eskatu al zuen? Baiezkoan, zer zioen txosten horrek? Ezezkoan, Nafarroako Gobernuak uste al du zuzen jokatu zuela txostenik ez eskatzean? Zer balantze egiten du erabaki horri dagokionez, behin Kontuen Ganberaren irizpidea ezagututa?

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak D ereduko ikasleen murgiltze-sistema eta -printzipioa mantenduko dituen eta hezkuntza-sistema eta -printzipio hori baliatu ahal izatea ahalbidetzen duten baldintzak mantendu, errespetatu eta sustatuko ote dituen jakitekoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak D ereduko ikasleen murgiltze-sistema eta -printzipioa mantenduko dituen eta hezkuntza-sistema eta -printzipio hori baliatu ahal izatea ahalbidetzen duten baldintzak mantendu, errespetatu eta sustatuko ote dituen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, apirilaren 10eko Osoko Bilkurarako, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua prest al dago ikasleen murgiltze-sistema eta -printzipioa mantentzeko D eredua hautatu duten gurasoen kasuan? Prest al dago hezkuntza-sistema eta -printzipio hori baliatu ahal izatea ahalbidetzen duten baldintzak mantendu, errespetatu eta sustatzeko? Zehazki, gaur egungo ekimenek –eta horien artean, 2014ko urtarrilaren 9an onetsitako mozioaren aitzakian, 47/2010 Foru Dekretuaren aldaketak– arriskuan edo auzitan jarriko al dute murgiltze-sistema eta -printzipio hori?

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako Nafarroako Parla- mentuak hautatzekoak diren bi kideen hautapenerako arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 5. artikulua xedatzen du Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Tekniko bat eratu behar dela, artikulua horretan zehazten diren egin-kizunak izanen dituena. Aipatu foru legearen 5. artikuluko 2. idatz-zatian xedatzen bada ere Batzorde Teknikoaren osaera erregelamendu bidez zehaztuko dela, batzorde horrek Nafarroako Parla-mentuaren ordezkari bat izan behar du nahi-taez.

Batzorde Teknikoaren osaera zehazten duen martxoaren 26ko 34/2014 Foru Dekretuaren 1.3 artikulua xedatutakoaren arabera, bi batzordekide Nafarroako Parla-mentuaren ordezkariak izan behar dira, aipatu Legebiltzarrak libreki hautatuak. Aplikatzekoa den aipatu arauak ezarri bezala, Nafarroako Parla-mentuak izendatu beharreko batzordekideek Legebiltzarra ordezkatu dutenez gero, komeni da hautatuak foru parla-mentariak izatea.

Hori horrela, Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduko 37.1.Bederatzigarrena artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena.- Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako Nafarroako Parla-mentuak bere ordezkari gisa hautatzekoak diren bi kideen hautapenerako arauak onestea. Hona testua:

1. Lehendakaritza, Justizia eta Barneko Batzordeak eginen du hautapena, parla-mentu-taldeek, banaka nahiz batera, proposaturiko foru parla-mentarien artean.

Parla-mentu-taldeek gehienez ere bi foru parla-mentari osatutako hautagaitzak aurkeztuko dituzte, aipatu Batzordeko Mahaiari zuzenduriko idazki baten bidez, eta horretarako epea apirilaren 11ko 9:45ean amaituko da.

2. Lehendakaritza, Justizia eta Barneko Batzordeko Mahaiak aldarrikatuko ditu proposaturiko hautagaiak.

3. Bi batzordekideak aldi berean hautatuko dira. Horretarako, Batzordeko kide den foru parla-mentari bakoitzak, titularra edo ordezkaria izanda ere, hautagai aldarrikaturiko foru parla-mentarien artean betiere, zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean.

4. Mahaiak botoak zenbatu ondoren, boto gehien lortzen dituzten foru parla-mentariak izanen dira Nafarroako Parla-mentuko ordezkari Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikoan.

5. Hautaketarako erabakigarria den berdinketa gertatuz gero, boto-kopuru bera lortu dutenen arteko bozketak errepikatuko dira, berdinketa hautsi arte.

6. Nafarroako Parla-mentuko Lehendakariari emaitza jakinarazita, horrek aipatu Batzorde Teknikorako bi batzordekide-parla-mentarien hautapena berri emanen dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari.

Bigarrena.- Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

